

7/2025. AKTA OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2025eko uztailaren 23an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutakoak: Argi Yeregui Egaña
Aitor Manterola Garate
Marina Bidasoro Arozena
Asier Arakistain Alberdi
Maite Egaña Larrañaga
Itziar Etxabe Etxabe
Unai Larrañaga Uranga
Nerea Goiria Mendiola
Jose Miguel Antia Albizu
Joxe Mari Azkue Castillo
Ainhoa Illarramendi Azkue
Xabier Odriozola Etxaniz
Ander Olaizola Esnal
Mireia Aranbarri Ilegi
Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Ez bertaratua: Iker Mardaras Arrieta

Idazkaria: Alexander Marañon Muñoz

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Besterik gabe, uztaileko osoko bilkurari hasiera emango diogu.

1.-AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

(6/2025 zenbakia. 2025.06.26)

Ekaineko Ohiko Osoko Bilkurako akta onartu dute aho batez.

2.- IRIZPENA

2.1.- ZUMAIAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIKO PLANARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.

2025KO UZTAILAREN 16KO LURRALDEA BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIKO PLANARI HASIERAKO ONESPENA EMATEKO.

DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA "LURRALDEA" DE 16 DE JULIO DE 2025 PARA LA APROBACIÓN INICIAL DEL PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE DE ZUMAIA.

AURREKARIAK

- 1.-** Ikusirik 2024ko urtarrilaren 15eko 17/2024 Alkate Dekretu bidez onartu zela ZUMAIAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA IDAZTEKO ZERBITZU KONTRATUaren adjudikazioa BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE LEY 18/1982 aldi baterako enpresa elkarteari (U56888068 IFK).
- 2.-** Ikusirik BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE LEY 18/1982 aldi baterako enpresak aurkeztutako ZUMAIAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA.
- 3.-** Ikusirik espedientearen parte diren txosten tekniko eta juridikoa.

ANTECEDENTES

- 1.-** Visto que mediante Decreto de Alcaldía nº 17/2024, de 15 de enero, se aprobó la adjudicación del CONTRATO DE SERVICIOS PARA LA REDACCIÓN DEL PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE DE ZUMAIA a la UTE BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE LEY 18/1982 (CIF U56888068).
- 2.-** Visto el PLAN DE MOVILIDAD URBANA SOSTENIBLE DE ZUMAIA presentado por BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE LEY 18/1982.
- 3.-** Visto los informes técnico y jurídico que obra en el expediente.

IRIZPENA

Ondorioz, 2025eko uztailaren 16ko Lurraldea Batzorde informatiboak, ondorengo botoekin

DICTAMEN

En consecuencia la Comisión informativa de "Lurraldea" de fecha 16 de Julio de 2025, tras la siguiente votación:

Alde: Argi Yeregui Egaña(EH Bildu)

Marina Bidasoro (EH Bildu)

Asier Arakistain (EH Bildu)

Josemi Antia (EAJ)

Iker Mardaras (EAJ)

Ainhoa Illarramendi (EAJ)

Kontra : 0

Abstentzia: Duñike Agirrezabalaga
(PSE)

A favor: Argi Yeregui Egaña(EH Bildu)

Marina Bidasoro (EH Bildu)

Asier Arakistain (EH Bildu)

Josemi Antia (EAJ)

Iker Mardaras (EAJ)

Ainhoa Illarramendi (EAJ)

En Contra: 0

Abstención: Duñike Agirrezabalaga
(PSE)

ALDEKO iritzia eman du eta honako IRIZPEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

LEHENA. Hasierako onarpena ematea Zumaiako Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planari, BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE merkataritza-sozietateak aurkeztutako dokumentuaren arabera.

BIGARRENA. Espedientea jendaurrean jartzea, 2025eko urriaren 10era arteko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udalaren webgunean argitaratuko den iragarki baten bidez. Iragarkia aldizkari ofizial horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da epea.

Epe horretan, edozein interesdunek espedientea aztertu ahal izango du Zumaiako Udalaren web-orrian (www.zumaia.eus) eta aurrez aurre Udalaren 1. solairuan (Foruen enparantza 1), eta egokitzat jotzen dituen erreklamazioak, alegazioak

acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y someterlo a la consideración del Pleno que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de los miembros presentes, el siguiente DICTAMEN:

PRIMERO. Aprobar inicialmente el Plan de Movilidad Urbana Sostenible de Zumaia, de acuerdo con el documento presentado por la mercantil BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE.

SEGUNDA. Someter el expediente a información pública hasta el 10 de octubre de 2025, mediante anuncio que se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web municipal. El plazo se contará a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio en dicho diario oficial.

Durante este plazo, cualquier interesado podrá examinar el expediente en la página web del Ayuntamiento de Zumaia (www.zumaia.eus) y presencialmente en la 1ª planta del Ayuntamiento

edo iradokizunak egin ahal izango ditu.

HIRUGARRENA. Jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betiko hartu dela ulertuko da, eta alkatetzak berariazko ahalmena izango du hura gauzatzeko.

LAUGARRENA. Gipuzkoako Foru Aldundiari txostena eskatzea, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren azaroaren 9ko 11/2023 Legearen 16. artikulua araber, Lurralde Historikoko Mugikortasun Jasangarriaren Planarekin bat etortzeari buruz.

(Foruen Enparantza 1), y formular las reclamaciones, alegaciones o sugerencias que estime oportunas.

TERCERO. Si durante el período de información pública no se presentaran reclamaciones o sugerencias, se entenderá definitivamente adoptado el presente acuerdo, quedando facultada la Alcaldía expresamente para su ejecución.

CUARTO. Solicitar informe a la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con el artículo 16 de la Ley 11/2023, de 9 de noviembre, de Movilidad Sostenible del País Vasco, sobre su adecuación al Plan de Movilidad Sostenible del Territorio Histórico.

Zumaia, 2025eko uztailaren 16a

[Lurralde batzordearen arduraduna](#)

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Alex, azalduko diguzu pixka bat?

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Gaia ya batzordeetan eta abar hitz egin da eta plana bera ere eskegita dago web orrian.

Hortaz, planteatzen dena gaur da hasierako onarpena ematea Zumaia hiri mugikortasun jasangarriko planari BUCHANAN - TECHFRIENDLY PMUS ZUMAIA UTE merkataritza-sozietateak aurkeztutako dokumentuaren arabera

Espedientea jendaurrean jartzea eta hogeta bosteko urriaren 10era arteko epean. Gogoratzen duzue gitxienez 45 eguneko epea egon behar dela eta hortaz, luzatzen da urriaren 10era arte.

Gipuzkoako aldizkari ofizialean eta udalaren webgunean argitaratuko den iragarki baten bidez. Iragarki aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da epea.

Epe horretan edozein interesdunek espedientea aztertu ahal izango du Zumaiako udalaren web orrian eta aurrez aurre udalaren lehenengo solairuan.

Hirugarrena. Jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betiko hartu dela ulertuko da, eta alkatetzak berariazko ahalmena izango du hura gauzatzeko.

Laugarrenik, Gipuzkoako Foru Aldundiari txostena eskatzea, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren azaroaren 9ko 11/2023 Legearen 16. artikulua araberako, Lurralde Historikoko Mugikortasun Jasangarriaren Planarekin bat etortzeari buruz.

ARGI YEREGUI EGAÑA

Bueno ni ez naiz asko luzatuko hauen lanketak eta parte-hartzea ba irekiak izan dialako eta zuekin komentau izan deulako azkenengo hilabeteetan.

Baino pixkat nahi nun aipatu ba mugikortasun plan honek oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna lehenesten dula, ba bueno, jasangarri hitz horrek esateigulako eta baita ere ba bueno, berdintasuneko ikuspegi bat dakala.

8-80 herria esaten zaio zortzi urteko eta 80 urteko pertsona batentzat atsegina eta bizigarria izango dan, bai mugikortasun eredu eta baita espazio urbano baten bila ta mugikortasun-plan hontan ematea lehenengo pausuak.

Ze azkenian aurreko plana pixkat beste ikuspegi batetik inda zeon, kotxien ikuspegitik, eta hontan justu herrigunian trafikua gutxitzeko intentzioa dao. Batez ere, ba oaintxe esan dituten talde hauen bizitza eta osasuna hobetzeko.

Bueno, kontzeptu hauek ezta guriak, o sea, Europatik datozen irizpidiak dia ta bueno ya hor gaude, nik ustet 2030eko agendan barne.

Eta bueno, esatia baita ere jarduketa bakoitzak eukiko dula bere lanketa propioa. Ordun, esan deten bezela, lehenengo pausoak ematea eta gida lerro bat jartzen da gero iteitugun proiektu eta beste lanketa guztietan ere oinarri hauek errespetatzen saiatuko gealako eta bueno hortan gaudelako plan orokorrian eta beste proiektu guztitan, berdinak jarraitzen dialako.

Eta bueno, besteik gabe, hoixe zan.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko, Argi. Zerbait komentatzeko EAJn partetikan?. Bai Ainhoa.

AINHOA ILLARRAMENDI AZKUE:

Arratsalde on. Gaur, Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planaren hasierako onespena bozkatuko dEgu eta Zumaia hobe baterantz aurrerapausoa emango dugu.

Ados gaude Planaren funtsezkoarekin:

- Oinezkoentzako eta bizikletentzako leku gehiago.
- Ibilgailu motordunentzako espazioa eta trafikoa murriztea.
- Segurtasun handiagoa gure joan-etorrietan eta gure egunerokotasunean.
- Ingurune atsegina eta osasuntsuagoa.
- Ingurumenaren eta ekonomiaren iraunkortasunari egiten dion ekarpena.

Azken batean, Zumaia egunean jartzea bere hiri-konfigurazioan, espazio publikoaren antolamenduan eta udalerrian zehar mugitzeko dugun moduan.

Hala ere, egunean jartze hori atzerapen nabarmenarekin dator, legeak ezarritako epeekin alderatuta; izan ere, Plan horrek 2021erako onartua egon behar zuen. Eta legeak hala agintzen duelako edo gaiak berak duen garrantziaz haratago, Plana onartzea beharrezkoa da azken urteotan beste erakundeek abian jarri dituzten finantzaketa eta bestelako laguntzak jasotzeko.

Gutxienez 4 urteko atzerapenarekin, argi dago Zumaia atzeratuta geratu dela atal honetan, eta bide luzea duela egunean jartzeko. Eta gure inguruko udalerriei begiratzea besterik ez dago hori agerian uzteko.

Beraz, gabezia garrantzitsu baten aurrean gaude, zumaiarren egunerokotasunean berebiziko garrantzia duen atal batean. Behar diren interbentzioen tamaina ikusita; gabezia hori gauzatzeko azkartasuna eta irmotasuna behar dira, kudeaketa ekonomiko indartsuaz gain.

Oro har, ados gaude planteatutako neurri batzuekin, eta beste batzuetan zalantzak eta desadostasunak ditugu. Alegazio-aldia erabiliko degu gure taldeak ontzat jotzen dituen hobekuntzak aurkezteko. Hobekuntza horiek gainerako taldeekin partekatzea espero dugu, guztion artean hain beharrezkoa den Plan bat hobetzeko.

Aurreko guztia kontuan hartuta, gure bozka abstentzioa izango da.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko Ainhoa. Duñike, zerbait komentatu nahi dezu? Ez? Beraz bozkatu egingo degu.

Aldeko botoak: 10 boto (10 EH BILDU)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

ERABAKIA:

ZUMAIAKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIKO PLANARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA.

2.2.- ZUMAIAKO KALE IZENDEGIA EGUNERATZEA (TORREAGA PLAZA ETA ALPERSAIL KALEA), BIDEZKOA BADA.

2025EKO UZTAILAREN 16KO LURRALDEA BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO KALE IZENDEGIA EGUNERATZEARI BURUZKOA (TORREAGA PLAZA ETA ALPERSAIL KALEA).

AURREKARIAK

1.- 2019ko martxoaren 28an egindako Ohiko Osoko Bilkuran kale izendegia egokitzea onartu zuen Udalak, aho batez. Erabaki hori GAO aldizkari ofizialean argitaratu zen 2020ko urtarrilaren 8an, zerrenda eta guzti.

2.- 2021ean beste bi plaza gehitu ziren (Martxoaren 8a plaza eta Fielatoa, 2022ko urtarrilaren 7ko GAOn argitaratua), eta 2022an beste bi (Goiko Alberga plaza eta Mareaerota plaza, 2022ko ekainaren 1eko GAO aldizkarian).

3- Basustabide industrialdean, Zubiaundiaren ondoan etxe berri batzuk eraikitzen hasi dira, eta bi gune izendatzeko premia ikusi dute Hirigintza Saileko arduradunek; plaza bat eta alboko kale bat. Euskara teknikariak txosten bat egin du, eta honako izen hauek proposatu ditu: Torreaga plaza eta Alpersail kalea.

4.- 179/2019 Dekretuak V. Kapituluaren xedatutakoaren arabera, Euskaltzaindiari eskatu behar zaio izen berriei buruzko txostena. Euskara Zerbitzuan landutako informazioa aintzat hartuta, 2025ekoko uztailaren 7an eman zuen Euskaltzaindiak aldeko txostena.

5.- Toki Erakundearen Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko araudiak 75. artikulua dioena eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen Legeko 22.2 q) letrak dioena kontuan izaten baditugu, Udalarari dagokio kaleei izenak

jartzea.

IRIZPENA

Ondorioz, 2025eko uztailaren 16ko Lurraldea Batzordeak, honako boto hauekin:

Alde: Argi Yeregui Egaña (EH Bildu)

Marina Bidasoro (EH Bildu)

Asier Arakistain (EH Bildu)

Josemi Antia (EAJ)

Iker Mardaras (EAJ)

Ainhoa Illarramendi (EAJ)

Duñike Agirrezabalaga (PSE)

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMEN HAU egin da:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea Zumaiako kale izendegia eguneratzeari, zerrandan TORREAGA PLAZA eta ALPERSAIL KALEA gehituta.

Bigarrena.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko erabakia behin betikotzat hartuko da, 7/1985 Legeko 49. artikulua arabera, eta Administrazio publiko interesdunei eta udalerrian kolektibitateko zerbitzuak ematen dituzten entitate, enpresa eta erakundeei jakinaraziko zaie.

Hirugarrena.- 179/2019 Dekretuak 45. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalak toponimoa edo leku geografikoa behin betiko onartu eta gero, udal idazkaritzak espediente osoaren kopia bidaliko dio hizkuntza normalizazioaren

eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bigarren puntua. Zumaiako kale izendegia eguneratzea. Torreaga plaza eta Alpersail kalea, bidezkoa bada. Nahi dezu zerbait komentatu edo?

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ

Hasierako onarpena ematea Zumaiako kale izendegia eguneratzeari, zerrendan TORREAGA PLAZA eta ALPERSAIL KALEA gehituta.

Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko erabakia behin betikotzat hartuko da.

Eta 179/2019 Dekretuak 45. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalak toponimoa edo leku geografikoa behin betiko onartu eta gero, udal idazkaritzak espediente osoaren kopia bidaliko dio hizkuntza normalizazioaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

Aldeko botoak: 16 boto (10 EH BILDU, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

ZUMAIAKO KALE IZENDEGIA EGUNERATZEA (TORREAGA PLAZA ETA ALPERSAIL KALEA)

2.3.- A-155 PANTEOIAREN TITULARTASUNA ALDATZEKO ERABAKIA OFIZIOZ BERRIKUSTEKO PROZEDURA.

LURRALDE BATZORDEAREN IRIZPENA

2025KO UZTAILAREN 16KO LURRALDEA BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, A-155 PANTEOIAREN TITULARTASUNA ALDATZEKO ERABAKIA OFIZIOZ BERRIKUSTEKO PROZEDURAREN INGURUAN.

Udala izapidetzen ari den hurrengo espedienteari dagokionez, NEREA EGAÑA EGAÑAK (NAN: 72458313X) eskatuta, Maria Belen Manterola Egañari, titular gisa, eta Juan Ignacio Manterola Chaparteguiri eta Maite Egaña Elorriagari, titularkide gisa, 2005eko azaroaren 24ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez Egaña Manterola A-155 panteoiaren titulartasuna ematearen ondoriozko administrazio-egintza berrikusteko eskaera dela eta, eta Udalbatzak 2024ko uztailaren 24an hartutako erabakiaren arabera, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio egintza hori ofizioz berrikusteko prozedurari.

Aurrekari hauek ikusita

- Interesdunaren eskaria: 2024ko uztailaren 10an
- Alkate probidentzia: 2024ko uztailaren 11an
- Idazkaritzako txosten juridikoa-ebazpen proposamena: 2024ko uztailaren 11an
- Lurralde batzorde informatiboaren irizpena: 2024ko uztailaren 17an
- Osoko bilkuraren akordioa: 2024ko uztailaren 24an
- Interesdunei jakinarazpena alegazioak egiteko 2024ko abuztuaren 8an
- Idazkariaren ziurtagiria alegazioen inguruan 2024ko urriaren 18an
- Idazkariaren txosten-erabaki proposamena 2024ko urriaren 18an
- Lurralde batzorde informatiboaren irizpena: 2024ko urriaren 23an
- Osoko bilkuraren akordioa: 2024ko urriaren 31an
- EABJren irizpena: 2024ko abenduaren 20an
- Idazkaritzako txosten juridikoa-ebazpen proposamena: 2025ko urtarrilaren 15an
- Lurralde batzorde informatiboaren irizpena: 2025ko urtarrilaren 22an
- Osoko bilkuraren akordioa: 2025ko urtarrilaren 30an
- Interesdunei jakinarazpena alegazioak egiteko
- Idazkariaren ziurtagiria alegazioen inguruan 2025ko ekainaren 5an
- Idazkariaren txosten-erabaki proposamena 2025ko uztailaren 10an

IRIZPENA

Ondorioz, 2025ko UZTAILAREN 16ko Lurraldea Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Argi Yeregui Egaña (EH Bildu)

Marina Bidasoro (EH Bildu)

Asier Arakistain (EH Bildu)

Josemi Antia (EAJ)

Iker Mardaras (EAJ)

Ainhoa Illaramendi (EAJ)

Duñike Agirrezabalaga (PSE)

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera :

LEHENA.- Erabat deusez deklaratzeko A-155 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia, 2005eko azaroaren 24an ebatzi zena, osoko bilkuraren erabaki bidez, Zumaiako Udaleko panteoien titulartasuna eguneratzeko prozeduraren barruan. Izan ere, uste da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluko deuseztasun-kausa honetan sartuta dagoela: " Legez ezarritako prozedura edo kide anitzeko organoen borondatea eratzeko funtsezko arauak erabat baztertuz emandako egintzak."; Zehazki, eguneratu nahi zen A-155 panteoiaren titulartasuna emateko 2005eko azaroaren 24ko Erabakia oinordetza- eskubidearen titular zen María del Sagrario Egaña Elorriaga pertsonari entzun gabe hartu zen, Zumaiako Udal Hilerraren Erregimen eta Funtzionamenduaren Araudiaren 16. artikuluan ezarritakoa urratuz.

BIGARRENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. artikuluan aurreikusitako Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzea.

HIRUGARRENA.- Hizpide dugun egintza berrikusteko osoko bilkuraren erabakia hartzeko epea etetea, eskaera hau egiten denetik irizpena jasotzen den arte, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikulua aurreikusten duen aukerari jarraikiz.

Zumaia, 2025eko uztailaren 16a

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Zerbait komentatzen baldin badezu?

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Besterik gabe, irakurtzea. Gaia ya behin eta berriro azaldu da.

LEHENA.- Erabat deusez deklaratzeko A-155 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia, 2005eko azaroaren 24an ebatzi zena, osoko bilkuraren erabaki bidez, Zumaiako Udaleko panteoien titulartasuna eguneratzeko prozeduraren barruan. Izan ere, uste da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko

39/2015 Legearen 47.1 artikuluko deuseztasun-kausa honetan sartuta dagoela: " Legez ezarritako prozedura edo kide anitzeko organoen borondatea eratzeko funtsezko arauak erabat baztertuz emandako egintzak."; Zehazki, eguneratu nahi zen A-155 panteoiaren titulartasuna emateko 2005eko azaroaren 24ko Erabakia oinordetza-eskubidearen titular zen María del Sagrario Egaña Elorriaga pertsonari entzun gabe hartu zen, Zumaiako Udal Hilerriaren Erregimen eta Funtzionamenduaren Araudiaren 16. artikuluan ezarritakoa urratuz.

BIGARRENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. artikuluan aurreikusitako Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzea.

HIRUGARRENA.- Hizpide dugun egintza berrikusteko osoko bilkuraren erabakia hartzeko epea etetea, eskaera hau egiten denetik irizpena jasotzen den arte.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eztet uste azaltzeko zeoze daonikan, baina bueno. Bozkatu eingo degu.

Aldeko botoak: 16 boto (10 EH BILDU, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

A-155 PANTEOIAREN TITULARTASUNA ALDATZEKO ERABAKIA OFIZIOZ BERRIKUSTEKO IRIZPENA ONARTZEA.

2.4.- ZUMAIAKO KOMENTUA KULTUR TOPAGUNEAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA

2025EKO UZTAILAREN 16KO HERRIA BATZORDE INFORMATZAILEKO IRIZPENA, ZUMAIAKO KOMENTUA KULTUR TOPAGUNEAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1.- Udalaren musika, dantza eta antzerki hezkuntza zerbitzua gauzatuko den, eta musika, dantza eta antzerkiaren jardura eta egitasmoak jorratzeko gunea izango da Komentua kultur topagunea.

KOMENTUA Kultur Topagunea Zumaiko ekosistema kulturala osatzen duten eragile anitzak bilduko dituen espazioa da (musika eskola, musika, dantza eta antzerki alorreko kultur elkarteak, bestelako norbanakoak eta sortzaileak) eta beraien jarduna edo egitasmoa garatzeko espazio izateaz harago, beraien artean elkar ezagutu, harremanak eraiki eta elkarrekin sortzeko lekua da.

2.- Helburu horiek betetzeko, eraikinean espazio ezberdinak sortu dira, eta topagunearen oinarrian dago osatuko duten elkarteen eta udal zerbitzuen arteko elkarlana eta komunikazioa, eta baita kanpoko erabiltzaile izan daitezkeen eskaerak erantzutea ere.

Funtzionamendurako beharrezkoak diren erabakitze guneak ere sortu dira: Asanblada eta Espazio Partekatua.

3.- Ekosistema guzti honetan ardatz ikuspegi Komunitarioa kokatu dugu: herriaren kultura aberasteko, sortzaile eta elkarteekin elkarlanean jarduteko.

4.- Proiektu estrategikoa da Zumaiko kultur bizitzarentzat eta baita herriaren Alde Zaharraren biziberritzerako.

Egitasmoa Udalaren Kultur Sailaren alorrean kokatuko da.

5.- Komentua Kultur Topagunearen funtzionamendu araudia sortu dute elkarteak eta Udalak, barne funtzionamendua arautzeko, parte hartze prozesu luze batean oinarrituta.

Araudi hau idazten udalaren sailekin ere lankidetzan aritu da kultur saila.

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 175. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri, sinatzen duenak honako hau aurkezten du:

IRIZPENA

Ondorioz, 2025eko uztailaren 16ko Herria Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 7 boto ⇒ 4 EH Bildu, 2 EAJ-PNV eta 1 PSE euskal sozialistak.

Kontra: —

Aldeko irizpena eman du azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, Toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan araututakoari jarraituz, eta horren arabera, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplez hartu beharko da:

LEHENA.- Zumaiako KOMENTUA Kultur Topaguneko funtzionamendu araudiari hasierako onarpena ematea, espedienteen jasota dagoen moduan.

BIGARRENA.- Espedientea eta, ondorioz, hasieran onartutako ordenantza kontsultetarako, jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko epea ezartzea, hogeita hamar eguneko epean, iragarkia Udalaren iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Aldi berean, udal ordenantzaren testua Udalaren web atarian argitaratzea: www.zumaia.eus.

HIRUGARRENA.- Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko da, Osoko Bilkuraren berariazko akordiorik behar izan gabe, eta ordenantzaren testu osoa isilbidez behin betiko onartzeko erabakia Udalaren iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

Zumaian, sinadura digitalaren datan.

Kultura zinegotzia

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Irakurri nahi badezu bozkatu behar deuna.

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Aurrekarietan aipatzen den moduan Komentua kultur topagunearen funtzionamendu araudia sortu dute elkarteek eta Udalak. Parte hartze prozesu bat burutu da barne funtzionamendua, ba bueno, arautzeko.

Eta hortaz, planteatzen den irizpena, lehenik, Zumaiako Komentua kultur Topaguneko funtzionamendu araudiari hasierako onarpena ematea, espedienteen jasota dagoen moduan eta atxikitu zaizuen araudiaren testuarekin. Eta bigarrenik espedientea eta, ondorioz, hasieran onartutako ordenantza kontsultetarako, jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko epea ezartzea, hogeita hamar eguneko epean, iragarkia Udalaren iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Aldi

berean, udal ordenantzaren testua Udalaren web atarian argitaratzea. Eta hemen ere epe horretan erreklamazioarik ez baldin badago, ba behin behinekoa dena ba behin betiko bihurtuko da.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko, Alex. Hemen, kulturako gaia denez, Marina, zerbait komentatuko diguzu.

MARINA BIDASORO AROZENA:

Arratsalde on. Dokumentu hau prozesu luze baten emaitza da. 2024ko irailean kultur topaguneko obra zibila bukatu eta hasi ginen kudeaketaren inguruan prozesu bat martxan jartzen, ikasturte osoa iraundu duena.

Udalarekin batera hainbat eragile: San Pedro abesbatza, Zumaiako musika banda, Astindu, musika eskola, Sapere Aude, Zumaiako txaranga, Zutrik, antzerkiko irakasleak, txistulari banda eta denekin batera Elhuyarreko teknikariak.

Baina emaitza bezain inportantea prozesu bera izan da. Araudi hau gauzatzeko prozesu honetan hainbat helburu ezarri ditugu. Helburu nagusia kultur topagunean ikuspegi komunitarioa txertatzeko ariketa partekatua egitea. Helburu zehatzak:

1. Kultur topagunerako adostutako gobernantza ekosistemarako proposamena berrikusi eta berrestea.
2. Zumaiako udalaren eta kultur topaguneko eragileen indargunetatik abiatuta, kultur topagunearen etorkizuna adostea.

Bost kapitulu ditu dokumentuak, gehi sei eranskin, non jasotzen diren landu ditugun puntu desberdinak.

Lehena, zergatik eta zertarako kultur topagunea eta hemen abiapuntu bezala, aitortza urteetan Zumaiako ekosistema kulturala osatzen dituzten eragileei egindako lana eta sortutako harreman sareagatik.

Bigarrena, kultur topaguneko gobernantza eredua, antolakuntza eta kudeaketa egiturak definitzen eta ardura eta funtzioak adosten.

Hirugarrena, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak, eskaerak, erreserba nola egin.

Laugarrena, estazioaren erabilpenak, ordutegiak.

Bosgarrena, dinamizatzailearen figura, bere funtzioak.

Hau denakin espero duguna da Komentua kultur topagunea Zumaiako kultur dinamikan erreferentzia lekua eta erakusleihoa izatea. Herriko ekosistema kulturala osatzen duten eragile anitzak bilduko dituen espazioa.

Eta hau dena, nola? Alde batetik, kultur topaguneko eragileen elkarlana sustatzen eta kohesioa lantzen. Eta bestetik, kultur topagunearekiko pertenezia sentimenduan

eragiten. Eta jarraian, beharrak, interesak eta esperientziak trukatzuz elkarrekin eta elkarrengandik ikasten.

Eta bukatzeko, eskerrak eman prozesu honetan parte hartu duten parte-hartzaile guztiei azaldu duten konpromisoagatik, jarrera eta eskuzabaltasunagatik, lan asko eginda.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko Marina. Zerbait komentatzeko daukazue? Duñike? Bueno ba bozkatu eingo dugu.

Aldeko botoak: 16 boto (10 EH BILDU, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

ZUMAIAKO KOMENTUA KULTUR TOPAGUNEAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA

2.5.- 2024KO URTARRILAREN 1ETIK ZUMAIAKO UDALEKO LANGILEEN ETA ORDEZKARI POLITIKOEN ORDAINSARIEN %0,5 IGOERA OSAGARRIAREN ONARPENAREN INGURUKOA, EKAINAREN 26KO 4/2024 ERREGE DEKRETUAK ARAUTUTAKOAREN ARABERA.

AURREKARIAK

1.- Ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri ematen dituenak eta zergen, energiaren eta gizartearen arloko premiazko neurriak hartzen dituenak, honela dio 6.2 artikuluan:

"2. – 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aplikatuko zaie, hala badagokio, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei, baldin eta 2022., 2023. eta 2024. urteetako KPIHren aldaketaren baturak 2022., 2023. eta 2024. urteetako ordainsari-igoera finko metatua gainditzen badu.

2.- Estatistikako Institutu Nazionalak, 2025eko urtarrilaren 15ean, 2022, 2023 eta 2024 urteetako KPIHren aldakuntzaren batura ehuneko 12koa dela ziurtatu du.

Bestalde, 2022, 2023 eta 2024ko ordainsari finko metatua ehuneko 8koa da.

3.- Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2024ko KPIHren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da 2025eko uztailaren 1ean Ministroen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean 2025eko uztailaren 2an argitaratuko da .

4.- Aurrekoa kontuan hartuta, egokitzat jo da 2025eko urria bitarteko nominetan Zumaiako Udaleko langileen eta ordezkari politikoen ordainsarien % 0,5eko igoera gauzatea, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuta eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

5.- 2025rako udal aurrekontuen I. kapituluaren, igoeraren gastua estaltzeko nahiko kreditua dagoela aurreikusi da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2025eko uztailaren 26ko Antolakuntza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Aldeko botoak: bozka 5 (2 EH-BILDU, 2 EAJ eta 1 Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak:

Abstentzia:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak 6.2.b) artikuluan aurreikusitakoa eta Estatuko Aldizkari Ofizialean 2025eko uztailaren 2an argitaratu den Ministro Kontseiluaren 2025eko uztailaren 1eko erabakian onartutakoa kontuan izanda, Zumaiako Udaleko langileen eta ordezkari politikoen ordainsarien % 0,5eko igoera onartzea.

2.- Ordainsarien %0,5eko igoera horrek 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Igoera hau urria bitarteko nominetan gauzatuko da.

Antolakuntza batzordeburua

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ez dakit azalpenik eman behar dan.

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Azaldu, ba hori, bozkatuko dena ekainaren 27ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak aurreikusitakoa eta Estatuko aldizkari ofizialean 2025eko uztailaren bian argitaratu den Ministro kontseiluaren 2025eko uztailaren bateko erabakian onartutakoa kontuan izanda,

Zumaiako udaleko langile eta ordezkari politikoen ordainsarien 100eko 0,5eko igoera onartzea. Ordainsarien 100eko 0,5eko igoera horrek 2023 abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie eta 2024ko urtarrilaren batetik aurrera izango ditu ondorioak. Igoera hau urria bitarteko nominetan gauzatuko da.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bale. Eskerrik asko Alex. Besterik ez baldin badao, aldeko bozkek?

Aldeko botoak: 16 boto (10 EH BILDU, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

ZUMAIAKO KOMENTUA KULTUR TOPAGUNEAREN FUNTZIONAMENDU ARAUDIARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA

2.6.- UDALAREN 15.KREDITU ALDAKETA AZALTZEA ETA IRIZPENA BOZKATZEA, HALA BADAGOKIO.

“Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2025-KALD-000016-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- 2025eko uztailaren 16an ospatzen den Ogasun Batzordeak onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	25.032,00
6	INBERTSIO ERREALAK	5.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		30.532,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	ACTIVOS FINANCIEROS.	30.532,00
GUZTIRA		30.532,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak: 4 (2 EH-BILDU; 2 EAJ)

Aurkako botoak:

Abstentzioa: 1 (1 PSE)

Proposamen hau Ogasun Batzordeak onartzen du, eta ondoren Osoko Bilkurari bidaltzen zaio, Osoko Bilkuraren onarpenaren ondorioz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera behin behineko onarpena bidaliko da, eta hamabost egunez jendaurrean ezarriko da.

Zumaian,

Kontu-hartzailea

Batzordeburua

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bueno 15. kreditu aldaketa da 30.532 eurokoa eta dator diruzaintza gerakinetik, iazko gastu orokorretara. Eta dia sei edo bost zea, piano eta bestelako garraio bereziak, ba honea trasladatzeko musika eskolako gaiak; IKT gailu berriak, baita ere komenturako; ekipo audio txikiya komenturako 3000; komentuko kudeaketa dinamika 15000, azalpena emanda dago kultura batzordean; eta hainbat gastu batzordean kontu-hartzaileak azaldu zuen bezala, ez ibiltzeko gauza txikiak gehitzen, baizik eta poltsa bat egin ahal izateko. Zerbait komentatzeko? Bozkatu eingo degu.

Aldeko botoak: 16 boto (10 EH BILDU, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

15. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA

3.- PROPOSAMENA

3.1.- TORREAGA 12 HIRIGINTZA EREMUKO 1.1./12.2. GAUZATZE UNITATEKO 1.3. LURSAILA ETA 1.8.3. AZPI LURSAILA PARTZELETAN ERAIKIKO DIREN BABES OFIZIALEKO 46 ETXEBIZITZA ETA GARAJE ETA 17 TRASTELEKUEN ZOZKETA ETA ESLEIPENERAKO OINARRIAK JASOTZEN DITUEN ZUMAIKO UDALA ETA CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK S.L.REN ARTEKO HITZARMENA HASIERA BATEAN ONESTEA. EZTABAIDATZEA EDO EZ.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bueno orain gai ordenetik kanpo dator proposamena, beraz, lehenbiziko gauza egin beharko duguna da onartzen dugun edo ez proposamena eztabaidatzea.

Aldeko botoak: 16 boto (10 EH BILDU, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

Proposamena Osoko Bilkuran aurkeztea eta bozkatzea erabaki da.

OSOKO BILKURARA PROPOSAMENA

Torreaga 12 hirigintza eremuko 1.1./12.2. gauzatze unitateko 1.3. lursaila eta 1.8.3. azpi lursaila partzeletan eraikiko diren babes ofizialeko 46 etxebizitza eta garaje eta 17 trastelekuen zozketa eta esleipenerako oinarriak jasotzen dituen Zumaiako Udala eta Construcciones Sukia Eraikuntzak S.L.ren arteko hitzarmena hasiera batean onestea

Azken urteotan geroz eta agerikoagoa da Zumaiako etxebizitza merkatuan dagoen presio handia. Gaur egun, etxebizitzaren beharra herritarren lehen mailako arazo bilakatu da. Eta horri erantzuteko hainbat neurri hartu ditu Zumaiako Udalak azken urteotan. Udalerrria tentsiopeko eremu izendatzea eta horren baitan egindako hirurteko plana, adibidez.

Plan horren misioa, Zumaiako herritarren etxebizitza premiak asetzeko udal etxebizitza politikak garatzeko neurriak proposatu eta adostu eta egikaritzea da, biztanleek etxebizitza duin eta egoki bat arrazoizko prezioan eskuratu ahal izatea bermatzeko.

Bisio horretara iritsi ahal izateko hainbat ekintza planteatu dira planean, eta horien artean dago, 1.1.1 EKINTZA: Etxebizitza babestuak eta zuzkidura etxebizitzak sustatzea Torreagako eremuan.

Hala, ekintza hori aurrera eramateko eta 2025IKIE0013 espedientearen baitan, babes publikoko etxebizitzak eraikitzeke, lehiaketa bidez, UDALAREN TITULARTASUNeko ETA UDALAREN LURZORU-ONDAREA OSATZEN DUTEN ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO TORREAGA 12. HA, 1/12.2 EUKO, 1.3. PARTZELA ETA 1.8.3. AZPIPARTZELA PROZEDURA IREKI BIDEZ CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK, S.L-ri (B20040598) adjudikatu zitzaion, 2025eko maiatzaren 16ko 2025/1100 Alkate Dekretu bidez.

Construcciones Sukia Eraikuntzak S.L, gaur egun, 2025eko ekainaren 27an Idurre Atorrasagasti Gurpegui Notarioaren aurrean sinatutako lursailen besterentze eskrituraren ondorioz, Babes Ofizialeko 52 etxebizitza eraiki daitezkeen TORREAGA 12 HIRIGINTZA EREMUKO 1.1./12.2. GAUZATZE UNITATEKO 1.3. LURSAILA ETA 1.8.3. AZPI LURSAILAREN jabea da.

52 etxebizitza horietako 6 etxebizitza (logela bakarrekoak) Udalak eskuratuko ditu babes ofizialeko etxebizitzaren araudiak ezartzen duen prezioan bere parke publikoa alokairuko etxebizitzaz hornitzeko helburuari erantzuteko.

Ondorioz, 46 etxebizitza eta haiei lotutako elementuak herritarrei esleitzeko prozedura finkatzearen beharrean ikusi da Zumaiako Udala.

Etxebizitza-eskatzailleen erregistroa eta babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurak arautzen dituen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren azken xedapenak ahalmena ematen die udalei babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurak arautzeko, sustatzaile pribatuek gauzatzen dituztenean, baldin eta udalekiko hitzarmenen edo akordioen eraginpean badaude sustapenok.

Hala, kontutan izanda Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzak erantzuten dion helburu soziala, eta erreparatuz promozio honekiko Zumaiako herritarrek duten interes handia da, beharrezkoa ikusten da prozedura horien arautzean Udalak parte hartzea. Era berean, interes publikokotzat jotzen da Udala izatea zozketa tutelatuko duena.

Hori horrela, adierazi den gisan, beharrezkoa da Sukia Eraikuntzak S.L-rekin hitzarmen bat sinatzea eta hitzarmen hori gauzatzeko oinarri arautzaile batzuk onartzea.

Honako aurrekari hauek ikusita:

- Hitzarmenaren eta Oinarrien hasierako testua
- Hitzarmenaren memoria
- Txosten juridikoa
- Osoko Bilkurarako Proposamenaren txostena

Legez ezarritako izapideak egin ondoren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 82.3 eta 91.4 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

AKORDIOA

LEHENA. Torreaga 12 hirigintza eremuko 1.1./12.2. gauzatze unitateko 1.3. lursaila eta 1.8.3. azpi lursaila partzeletan eraikiko diren babes ofizialeko 46 etxebizitza eta garaje eta 17 trastelekuen zozketa eta esleipenerako oinarriak jasotzen dituen Zumaiako Udala eta Construcciones Sukia Eraikuntzak S.L-ren arteko hitzarmena hasiera batean onestea.

BIGARRENA. Informazio publikoko epea abiaraztea, HOGEITA HAMAR (30) EGUNEKO epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Horretarako, Udaletxeko iragarki-taulan (egoitza elektronikoan) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da iragarkia. Epea zenbatzen hasiko da iragarkia GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

HIRUGARRENA. Epe hori igarota, hitzarmena eta oinarriak behin betiko onartutzat joko dira, osoko bilkuraren beste erabaki baten beharrik gabe, jendaurrean jartzeko epean alegaziorik aurkezten ez bada.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea hitzarmena eta beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko, bai eta hartutako erabakia gauzatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak gauzatzeko ere.

BOSGARRENA. Erabaki hau Construcciones Sukia Eraikuntzak S.L.ri jakinaraztea.

IDAZKARIA

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Azalduko diguzu pixkat hitzarmen honen nondik norakoak.

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Bueno, proposamenean datorkizuen moduan 2025IKIE00013 espedientearen baitan babes publikoko etxebizitzak eraikitzeke lehiaketa bidez bi partzela hoi besterentzea bideratzeko espedientea zabaldu zan eta Sukia eraikuntzak izan zan adjudikazioduna.

Ekainaren 27an eskriturak sinatu ziren enpresa horrekin eta lurzoru hoiek, non 52 etxebizitza babestu eraiki daitezkeen, ba besterendu ziren. 52 etxebizitza horietako sei etxebizitza, logela bakarrekoak, Udalak eskuratuko ditu babes ofizialeko etxebizitzen araudiak zehazten duen prezioan bere parke publikoa alokairuko etxebizitzaz hornitzeko helburuari erantzuteko.

Ondorioz, 46 etxebizitza eta haiei lotutako elementuak herritarrei esleitzeko prozedura finkatzearen beharrean ikusi da Zumaiako Udala. Etxebizitza-eskatzaileen erregistroa eta babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurak arautzen dituen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko aginduaren azken xedapenak ahalmena ematen die udalei babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurak arautzeko, sustatzaile pribatuek gauzatzen dituztenean, baldin eta udalarekiko hitzarmenen edo akordioen eraginpean badaude sustapenok.

Hala, kontuan izanda babes ofizialeko etxebizitzen eraikuntzak eransten dion helburu sozialari, eta erreparatuz promozio honekiko Zumaiako herritarrek duten interes handia, beharrezkoa ikusten da ba prozedura horien arautzean Udalak parte hartzea. Eta era berean, interes publikotzat jotzen da Udala izatea zozketa tutelatuko duena.

Hori horrela, adierazi den gisan beharrezkoa da Sukia Eraikuntzak S.L.rekin hitzarmen bat sinatzea eta hitzarmen hori gauzatzeko oinarri arautzaile batzuk onartzea egingo diren etxebizitza hoi adjudikazioa nola egingo den arautuko dituztenak.

Hortaz, gaur bozkatuko dena da:

Lehenik, Torreaga 12 hirigintza eremuko 1.1./12.2. gauzatze unitateko 1.3. lursaila eta 1.8.3. azpi lursaila partzeletan eraikiko diren babes ofizialeko 46 etxebizitza eta garaje eta 17 trastelekuen zozketa eta esleipenerako oinarriak jasotzen dituen Zumaiako Udala eta Construcciones Sukia Eraikuntzak S.L.ren arteko hitzarmena hasiera batean onestea.

Bigarrenik, informazio publikoko epea abiaraztea, HOGEITA HAMAR (30) EGUNEKO epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Horretarako, Udaletxeko iragarki-taulan (egoitza elektronikoan) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

argitaratuko da iragarkia. Epea zenbatzen hasiko da iragarkia GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Hirugarrenik, epe hori igarota, hitzarmena eta oinarriak behin betiko onartutzat joko dira, osoko bilkuraren beste erabaki baten beharrik gabe, jendaurrean jartzeko epean alegaziorik aurkezten ez bada.

Laugarrena, Alkateari ahalmena ematea hitzarmena eta beharrezkoak diren dokumentu guztiak sinatzeko, bai eta hartutako erabakia gauzatzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak gauzatzeko ere.

Eta bosgarrena, erabaki hau Construcciones Sukia Eraikuntzak S.L.ri jakinaraztea.

Hitzarmena eta oinarrietan puntu nagusi batzuk azaltze aldera, hitzarmenean hasiera batean aipatzen dira hau zein den orain artean azaldu dizkizuedan oinarriekin, ba bueno, hitzarmenaren zergatia eta zertarako den hitzarmena. Gero klausuletan aipatzen da zer eraiki daitekeen bertan eta izatez Sukia enpresaren bete-beharra dela zozketaren gastu guztiak eta prozedura guztiak eragiten dituzten gastuak bere gain hartzea.

Eta kasu horretan, hemen ekartzen duguna gaur hasierako onarpena ematera da, ba, zozketa hori edo behintzat adjudikazio hori arautuko dituzten oinarriak, ba gaur bozkatzera datozen oinarri hauek, ba hurrengo lefro horren arabera begiratu beharko direla adjudikazioak.

Funtsean, eta laburrean esanda, deialdiaren xedea da oinarri horietan eraikiko diren babes ofizialeko 46 etxebizitza, garaje eta trastelekuak sustatzeko eta esleitzeko baldintzak ezartzea babes publikoko etxebizitza, araudi orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen kalifikazio iraunkorra izango dute eta etxebizitza, garajeak eta trastelekuak jabetza erregimenean eskualdatuko dira.

Hirugarren artikuluan ezartzen dira zozketan parte hartzeko baldintzak.

Baldintza pertsonaletan Adin nagusikoa edo adingabeko emantzipatu izatea, Etxebideko etxebizitza eskatzaileen erregistroan eskaera behar den moduan aurkeztuta izatea, Zumaiian erosketa erregimenean babes ofizialeko etxebizitza eskatzaileen gisa, 2025eko irailaren 19an.

Hurrengoan erroldatze baldintzetan ezartzen da Zumaiako udalerrian erroldatuta egotea 2025eko irailaren 19aren aurreko azken 10 urteetan gutxienez bost urtez. Edo Zumaiako udaberrian egotea 2025eko irailaren 19aren aurreko, gutxienez, bi urtetan eta etenik gabe. Eskaeran titular bat baino gehiago badago, nahikoa da horietako batek erroldatzeari dagokien baldintza betetzea.

Baldintza ekonomikoetan aipatzen da urteko diru sarrera Jaurlaritzak duen legeria eta dekretuen arabera, urteko diru sarrera haztatuak egiaztatuta beharko dira eta diru sarrera horiek gehienez ere 45 022,57 eurokoak izango dira eta gutxienez 12.000 eurokoak.

Mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonen kasuan, edota adimen desgaitasuna onartuta duten pertsonen kasuan, 3000 euroko gutxieneko diru sarrerak egiaztatzea.

Horrekin nahikoa izango litzateke. Kontuan izan behar da ere diru sarreraren zenbateko egiaztatzeko 2024ko ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aitortutakoak hartuko direla kontuan.

Hurrengo baldintza da etxebizitza premia, eta hemen ba bizikidetzaren unitatea osatzen zuten pertsonetako batek ere ezin izango du etxebizitzarik eduki jabetzan, jabetzaz soilean edo azalera-eskubidean edo gozamenean. Hor gero salbuespen batzuk agertzen dira, legeak ekartzen dituenak.

Ondoren ere islatzen dira etxebizitza egokituen kupoan parte hartzeko baldintza berezituak, desgaitasun maila, mugikortasun urri hori neurtzeko mailak.

Hortik aurrera, ba bueno, ya esleitzeko modua aipatzen da. Zozketa nola egingo den. Deialdia egingo da behin oinarri hauek behin betiko onartuta, deialdia egingo litzateke eta 15 eguneko epean izen emate hori

hemen Udalean, Udaleko erregistroan telematikoki egin daiteke. Ondoren, oinarritan ere, bukaeran jasotzen dira zeintzuk izango diren eskari orri ereduak.

Behin-behineko zerrendak, behin konprobatuta eroldaren betekizuna, publikatuko lirateke. Badakizue bi zozketa mota egongo dira: kupo orokorra eta egokitutako edo mugikortasun urria duten kupoak.

Epe bat emango da hoiengentzat errekamazio bat egin ahal izateko, 10 egunekoak. Eta ondoren behin betiko zerrenda ya publikatuko dira. Ba zenbaki ezberdinak banatuko dira. Eskatzaileen arabera edo familia unitatearen arabera, zenbaki bat baino gehiago izateko aukera izango dute, gehienez hiru.

Eta ondoren, zozketa egiteko eguna izendatu eta zozketa egingo litzateke. Zozketa egingo da modurik errezenean. Bi zozketa egingo dira. Kupo bakoitzeko bat eta bonbo hoietatik, bola guztiak bertan sartu eta zenbaki bakarra aterako da eta hortik aurrerakoak izango dira. Kasu horretan zenbaki bat atera kupo orokorrean eta hurrengo 42ak eta bestean zenbaki bat atera eta hurrengo biak.

Hortik aurrera etxebizitzak esleituko dira. Zerrenda bat eginda ordenaren arabera. Etxebizitzaren esleipenaren ordenarekin. Zerrendatuta dago etxebizitzaren ordena. Gogoan izan etxebizitza guztiak daukatela garajea, baina trastelekua ez. Orduan egokituko zaie, etxebizitza, garajea eta trastelekua dagokionari. Berdina ere mugikortasun urriko kupoari dagokionez. Eta gainontzekoekin itxaron zerrenda bat eratuko da. Ba bueno, pues hor esleipen guzti hauekin, azkenian, uko egiteak baleude ba hortik ere tiratzeko hurrengo adjudikazioak egiterakoan.

Eta hortik aurrera ya ba promotorarekin, Sukiarekin egin beharko dute kontratu pribatu bat. Kontratu pribatu horrekin, eta hor, aipatutako dokumentazioarekin Jaurlaritzara

bidaliko litzateke eta Jaurlaritzak behin oniritzia emanda, esleipendun guzti horien inguruan, ba ya salerosketa, eskritura geratuko litzateke. Printzipioz 30 eguneko epean eta ba ya etxebizitza hoiien jabe izango lirateke. Eta hortik ya eraikitzen hasiko litzateke.

Hori da gutxi gorabehera, oso labur esanda, bueno aurretik ere bidali zaizue. Azkenengo aldaketa batzuk zozketarekin. Egia da gure zerbitzu tekniko eta juridikoak egon direla etengabe harremanetan Jaurlaritzarekin, eredu ezberdinak aztertu izan dira eta bueno, azkenean hobetsi da hau izan daitekeela nahiz eta zozketa bat izan, ba bueno, zozketa eredu edo modurik errazena, eraginkorrena. Eta ahal den neurrian, inolako arazorik edo sortu ez dezaten.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko Alex. Zer bait esan nahi dezute? Bai, zure txanda Xabier.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Arratsalde on.

TORREAGA GUNeko BABES OFIZIALEKO 46 ETXEBIZITZA ETA GARAJE ETA 17 TRASTELEKUEN ZOZKETA ETA ESLEIPENERAKO OINARRIAK JASOTZEN DITUEN ZUMAIKO UDALA ETA CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK S.L.REN ARTEKO puntuan EAJ-PNV ko taldeak BAIEZKOA bozkatuko dugu:

Esan beharra dago Babes Ofizialeko Etxebizitzen (BOE) oinarriei dagokienez, Zumaiako Udalaren eskumenak mugatuak dira: zozketa nola egingo den eta eroldaren ezaugarriak baino ezin ditu zehaztu. Gainerako eskumen guztiak Eusko Jaurlaritzarenak dira. Esaterako, babes ofizialeko etxebizitzen prezioa (BEZa barne, 180.000 eta 230.000 euro artekoa izan behar dena etxebizitzaren ezaugarrien arabera). Hori horrela izanik, funtsezkotzat jotzen dugu eroldaren ezaugarriei pisu handiagoa ematea.

Uztailak 16 ko komisioan EAJren errola-baldintzen proposamena hau izan zen , 2025eko irailaren 19a erreferentziatzat hartuta:

Zumaian gutxienez azken 5 urteetan etenik gabe errolatuta egon izana.

Edo, Zumaian azken 20 urteetan 10 urtez errolatuta egon izana

EH Bilduk gure proposamenari ezetz esan zion eta beraz gaurko oinarrietan ondorengo errola baldintzak bozkatuko dira, 2025eko irailaren 19a erreferentziatzat hartuta:

Zumaian gutxienez azken 2 urteetan etenik gabe errolatuta egon izana.

Edo, Zumaian azken 10 urteetan 5 urtez erroldatuta egon izana.

Gure errolda-proposamenak eskualdeko beste udalerrietan ere aplikatzen diren irizpideetan oinarritzen dira. Eta Zumaian bizi-proiektua finkatu nahi izan duten herritarrei zuzenduak daude.

Bestalde, gogorarazi nahi dugu, 2018an, EAJ-PNV alkatetzan zegoelarik lortutako hitzarmenari esker, gaur egun Torregako gunean etxebizitza tasatuak eta babes ofizialekoak ditugula.

2018 an lortutako akordioan jasotakoaren ondorioz, 250 etxebizitza eraikiko dira Torreagan. Hasiera batean ez bezala, etxebizitza horiek ez dira guztiak libreak izango; %20 tasatuak izango dira, %20 babes ofizialekoak, eta gainerakoak libreak. Hau izan zen hitzarmen berriaren aldaketa garrantzitsuena. Horrez gain, Udalak 1.500 m²-ko lokal bat ere eskuratuko zuen. Diseinuari dagokionez, hasierako L formako eraikin handi bat izatetik, gaur egungo plangintzako bost bloke izatera pasa zen proiektua.

2018ko iraileko Osoko Bilkuran Torregaberriko hitzarmen berri hau onartu zen. Bertan EH Bilduk abstentziora bozkatu zuen, honakoa argudiatuz: "babes ofizialeko etxe gehiago lortzeko aukera dago, baina hitzarmena ez dugu oztopatu nahi, beraz, abstenitu egingo gara".

2019tik EH Bilduk darama alkatetza, baina eskatzen zutenaren kontra, babes ofizialeko etxeen kopurua ez dute handitu.

Urte amaieran, dena ondo badoa, 2018ko hitzarmenean jasotako babes ofizialeko etxebizitzak zozkatuko dira. Oso pozik gaude EAJ-PNVren lanaren ondorioz zumaiarrentzat etxebizitzak egingo direlako.

Bukatzeko, lehen aipatu bezala EAJ-PNVko taldeak baiezkoa bozkatuko du.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ez horregatik. Zuk zerbait komentatu behar dezu? Bueno, bi kontu:

Alde batetik errolda kontua. Aipatu duzu guk ezezkoa adierazi genizuela baina ez dezu esan zeatikan esan gendun ezetza ta nik uain argituko det zeatikan esan gendun ezetza.

2023ko martxoan, hemen, udalbatza honek danon oniritziakin, aho batez onartu zun eta etxebizitza tasatuen ordenantza nun arautzen zan etxebizitza tasatuetan aurkeztu ahal izateko ze baldintza bete behar zuten.

Onartu genuen aho batez, eztabaida baten ondoren eta mahai gainean ipini ondoren, proposamen ezberdinak. Lanketaren ondoren onartzen baldin baditugu bi urteko antzinakotasuna eta baita ere 10 urtetan 5, ez dakit ze irizpide aldaketa eon dan EAJ taldean orain lehenago onartu zutena beste modu batea proposatzeko.

Guk uste deu kontsensusa lortu genula talde guztiena eta koherentzi bat mantendu behar dugula uain dala bi urte, justu bi urte, onartutako gai batean. Hori alde batetikan. Eta beste alde batetikan, bueno dakizuen bezala, horrelako operazio urbanistiko bat epe luzia eramaten du.

Eta egia da 2018an lotu zala hitzarmena nun adierazten zan ze etxebizitza kopuru eingo zan eta ze baldintzetan eingo zian. Eztakit, harrotasunez aipatzen duzu lortu zenutela etxebizitza babestuak izatia VPO %20a eta tasatuak % 20a. Eske hori da legeak ematen du minimoa.

Eske ez da harrotasunez hori defenditzea, baizik eta legeak hori gutxienez bermatu behar du. Beraz, hori baino gutxiyo ezintzan proposatu. Hori baiño gehio bai, hori baino gehio lantzea bazeon. Bere garaian, EH bildu udal taldeak, bai eskatu zula negoziazio horretan alkateari eta orduko EAJko gobernari % hoiiek handitzea.

Ez zan aintzakotzat hartu eta minimoetara jun zan eta horrela abiatu dala Torreagako promozioa.

Nik gogoratu nahi det, bueno eztakit, pentsatzen det gaur egindako adierazpenarekin ba patrimonializatu nahiko dala etxebizitza hoiien, eztakit, jabetza edo dena delako hori.

Askotan hitz egin det Sukiako ordezkariarekin eta aurreko alkatea Oier Korta sartu ta 15 egunea hasi zian beaiek lehendabiziko kontaktua eiten. Eta oain daude eraikitzen. Beraz, prozesuan jun dia konstruitzen hasteko zortzi urte.

Eta prozesu guzti horretan, momentu horretan agintzen zegonai zegokion eman beharreko pausoak ematea. 2018an itxi zan sinatu zen hitzarmena hori aurrea eramateko, baina gero beste guzti danak baita ere beste aurrerapauso danak beste gobernu batekin eman dira.

Eta gure ekarpena izan da hor ateratzen diren etxebizitza babestuak, behintzat parte bat geratzia udal patrimoniorako. Alokairuan aterako duguna. Hori da gure gure ekarpena.

Eta bueno gogoratu baita ere halako batian desataskatu dala operazio hau. Operazio hau ez dator 2018tik eta ezta ere 2015etik. Hau aspalditik dator. 2007an ya bazihuan ya aurrea eta euki ditu zailtasun ikaragarriak. Bere garaian eon zan hemen parmuta bat.

Hauek danak eztabaidatuta daude pleno areto hontan askotan eta orduko alkateak adostu zun permuta haretan VPO etxebizitzak Puntanueta trasladatzea eta horren ordainetan 4 milioi euro jasotzia. Kasu hontan, Zumaia Lantzen zeon operazioa eramaten.

Hori Maria Eugenian garaian izan zan. Gero hartu zun hau UTE batek, zeudenak Construcciones Galdeano eta Altuna y Uria. Construcciones Galdeano konkurso

batian sartu zan eta azkenian UTE konkurtso batean sartu zan eta Udalak jaso behar zituen 4 milioi euroak galdu in zitun.

Hori izan zan Zumaia Lantzenen, ba bueno, finantzieroeki kaos bat eta gero, bueno, guk eman gendun pausoak hura dana likidatu ta ixteko.

Orduan prozesu luzia izan da eta hau da beste hito bat bide horretan.

Besterik gabe, histori pixkat kontatzeko.

Bale, bai, esan Xabier.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Lehen komentatu dezu tasatuen ordenantza bat dagoela 2023koa. Bai, baina ordenantza horrek ez du erabakitzen oinarrietan ze jarri behar den eroldaren baldintzetan. Eta eroldaren baldintzak oinarri bakoitzaren arabera aldatu ditzazkezu. Ez dago inungo arazorik. Eta gainera, kasu hontan oinarri hauek babes ofizialekoak dira. Beraz, guretzat, eta iruditu zitzaigun komisionan borondate bat bazegoela.

Ez onartzea borondate faltan dago, ez dago ordenantza horren menpe. Bai? Iruitzen zaigu aldatu daitekeela inungo arazorik gabe. Hau da, ordenantza horrek oinarriei ez die obligatzen, esango genuke.

Eta lehen komentatu dezu baita 2018ko hitzarmena bozkatu zenean EH bildu abstenitu egin zela eta bere hitzak izan ziren, zuk esanda bezala, ba babes ofizialeko etxe gehiago lortzeko aukera bazegoela. 2019tik alkatetzan zuek zaudete eta iruditzen zait bazegoela aukera handitzeko. Hitzarmena...

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Hitzarmena ezin da aldatu, majo.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Eztakit majo naizen o ez. Ez nao ziur. Baina baldintzak aldatu daitezke eta egin dituzue aldaketa batzuk.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bueno aber, hitzarmen bat sinatuta baldin bado ta aurrea baldin badijua, nik ezin dut hitzarmen hori atzera bota. Juridikoki kalte-ordainak ordaindu beharkoia.

Beste beste gauza batzuk aldatu ditzazke, adibidez, zuk esan duzun bezala, 2023an ordenantza bat onartzen dugu. Ordenantza bat da guk udalbatzaren baitan onartzen dugun gauza bat eta honea ekarrita ordenantza aldatu dezakegu, noski. Baina asuntua, ezta zuen borondatia edo gure borondate falta. Asuntua da etxebizitza babestu batzutan arautzeko araudi bat egiten dugula, konsenso batea aileatzen geala oinarriko puntu batean, nun dan erroldan antzinakotasuna.

Aldagai asko sartzen dira. Zuek bost urte sartzen dezute, izan daitezke hamar edo izan daitezke, ez dakit, Telmo eta Arritokieta izena dutenak bakarrikan apuntatu daitekeela. O sea, baldintzak 1000 dia. Baino lanketa baten ondoren etxebizitza babestuetan zein oinarri ipintzeko momentuan adostu in gendun uain dala bi urte udalbatza osuak oinarri batzuk.

Uain bapafian ekartzia beste aldaketa batzuekin VPO dalako... etxebizitza babestuak dia bai batak eta bai bestiak. Hori uste det tokiz kanpo zeola eta baita ere, ba bueno, azalpenak oso errexak dia.

Nik ez det bukatu e. Barkatu, ez det bukatu.

Eta gero zein esan dezu? Bai. 2018an hitzarmen bat sinatuta dagola. Udaletxiak eta Sukiak sinatzen baldin badue hitzarmen bat aurrera eramateko eta beoiek lanketa iten hasten baldin badia eta beaiek iten baldin badue. Gainera, adosten dugu ordainean ze jaso bihar dun udalak eta diruz ya kuantifikatzen baldin bada, esaten didazu garaiz gaudela hori aldatzeko? Oso ondo. Hori zure iritzia izango da. Ez dakit juridikoki hala dan o ez dan.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Egin dira hitzarmen aldaketak leku askotan eta egin ahal da.

Eta bestea, esateizut, ordenantza batek oinarriai ez dio obligatzen. Beraz, gure ustez borondate falta da. Iritzi desberdintasuna izango da.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bueno, barkatu baina. Ez, ez. Iritzi ezberdina ez da. Hemen dao hitzarmen bat eta sinatzen darian hitzarmen bat udaletxe bat eta promozio batian eta ze baldintza ekonomikotan eta eiten darian...

Nei eztit balio, hemen, udalbatza batian esatia "egiten da". Nun eta nola esan beharko dezu zeatikan "egiten da" nik uste det dala un brindis al sol.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Badakigu egiten dala. O sea que...

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bueno, zuk badakizu.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Ta zuk ere.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Nik ere badakitela?

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Bai.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Zuk badakizu gezurretan ari zarela. Nik ez dakit, eztakit. Balu, balego ta balitz.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Nik badakit majua naizela ere.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Edo guapua izan zaitezkeela. Hasten baldin bagea nibel honetan: zuk badakizu, nik ere badakit. Zer dakit nik eta zuk zer dakizu? Zuk badakizu nik zer dakiten?

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Zuk ere ez nik zer. Nik nire iritzia eman dudan bezela, zuk zurea.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Ez, ez. Hori ez da iritzia. Hori ez da iritzia. Hemen dao balio juridikoa dakan hitzarmen bat eta zuk esan dezu hori guk aldatu dezakegula.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Noski.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bueno ba hurrengo batian horrelako baieztapen bat egiten duzunean, mesedez ekarri ezazu oinarri juridikoak hori baieztatzen dituztenak. Bestela gauza bat da kritika politikua eta beste gauza ba da holako bulo bat botatzia esanez "eta zuk badakizu". Hori ya beste nibel bateko gauza bat da, Xabier. Eta hor ez gea aurkituko.

Bueno, besterik gabe. Bozkatuko dugu hitzarmena?

Aldeko botoak: 16 boto (10 EH BILDU, 5 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:

TORREAGA 12 HIRIGINTZA EREMUKO 1.1./12.2. GAUZATZE UNITATEKO 1.3. LURSAILA ETA 1.8.3. AZPI LURSAILA PARTZELETAN ERAIKIKO DIREN BABES OFIZIALEKO 46 ETXEBIZITZA ETA GARAJE ETA 17 TRASTELEKUEN ZOZKETA ETA ESLEIPENERAKO OINARRIAK JASOTZEN DITUEN ZUMAIAKO UDALA ETA CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK S.L.REN ARTEKO HITZARMENA HASIERA BATEAN ONESTEA

4.- UDALBATZAKO ORGANUEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA.

4.1.- 2025EKO 12. ETA 13. ERREPARO ORRIAK ETA HAIEN EBAZPENAK JAKINARAZI

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (12/2025):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaiko Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
UTE LV ZUMAIA	Kale garbiketa	11/01/2016	1+1	11/01/2018
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
Kalexka elkartea	Kale heziketa/esku hartze programa	01/07/2017	2+2	01/07/2021
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los

artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.

6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiakoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako mankomunatuari erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino

lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtssezko beharkizun** edo izapidetza alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta

honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena

12. artikulua. Eragozpenak.

1. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere

eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatu behar dira, eta espedientearen jasotako oztopo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badiot, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.
3. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatua jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedientearen akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientearen onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu

izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedientearen aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZABARNE
2025/6/3	826/25	KASTORE GEST	Oxford MAIATZA	1.147,33
2025/5/31	FOSO-24450	EULEN SERVICIOS SOCIOANITARIOS	MAIATZA 2025 - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIKETA ZERBITZUAGATIK	22.541,86
				23.689,19

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak lehentasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

ALKATE EBAZPENA

AURREKARIAK

2025eko ekainaren 13an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (12/2025)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZABARNE
2025/6/3	826/25	KASTORE GEST	Oxford MAIATZA	1.147,33
2025/5/31	FOSO-24450	EULEN SERVICIOS SOCIOANITARIOS	MAIATZA 2025 - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIKETA ZERBITZUAGATIK	22.541,86
				23.689,19

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea



KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (13/2025):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaiako Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratatuakotako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu

Eulen	Eguneko zentroa	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
Kalexka elkarte	Kale heziketa/esku hartze programa	01/07/2017	2+2	01/07/2021
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

Aplikagarria zaizkion arauak:

1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los

artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.

6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezkotasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezkotasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurreziakoa.

b) Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako mankomunatuari erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino

lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharraren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebatzen den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapidetak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena

12. artikulua. Eragozpenak.

4. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere

eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatatu behar dira, eta espedienteetan jasotako oztoko guztiak barnean hartuko dituzte.

5. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badiu, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.
6. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatua jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:

a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.

b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.

c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedienteetan akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientearen onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu

izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan,

foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZABARNE
2025/5/20	FOSO-20203	EULEN SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS	APIRILA 2025 - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIKETA ZERBITZUAGATIK	21.038,28
				21.038,28

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregularitasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak lehentasuna eduki beharko luke kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

ALKATE EBAZPENA

AURREKARIAK

2025eko ekainaren 20an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (13/2025)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURAZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZABARNE
2025/5/20	FOSO-20203	EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS	APIRILA 2025 - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIK	21.038,28
				21.038,28

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea



Alkateak erreparo orriak gaineratik azaldu ditu.

4.2.- UDALAREN 13. ETA 14. KREDITU ALDAKETAK JAKINARAZI

2025ko aurrekontuan kredituak txertatzeko proposamena.

Kod.	Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
d	1 0100.623.134.00.01 2024	ERREKARGA PUNTUAK	35.000,00
d	1 0100.601.134.00.01 2024	ITZURUNBIDEKO IGOGAILUA	67.129,79
d	1 0100.622.334.00.99 2024	SAN JOSE KONBENTUA (ULO) MRR	50.000,00

TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA**152.129,79****KODEEN AZALPENA**

- a) Aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan onartutako transferentziak eta kreditu gehigarriak.
- b) Xedatutako gastuen kredituak, obligazioa onartu gabe dutenak.
- c) Gaitutako kredituak eta finantzaketa lotua duten kredituak.
- d) Kapital eragiketen kredituak.

2025ko aurrekontuko kreditu txertaketaren finantzaketa

Kod.	Sarreren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2025	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	152.129,79
FINANTZAKETA GUZTIRA			152.129,79

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina.
- c) Sarrera konpromisoak.
- d) Sarrera berriak edota likidatutako sarrera handiagoak.

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.601.151.00.01 2025	TORREAGAKO ETXEBIZITZEN BEZ-A	0,00	98.876,86	98.876,86
GUZTIRA		0,00	98.876,86	98.876,86

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2025	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	98.876,86
FINANTZAKETA GUZTIRA			98.876,86

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaian,

Alkatea

Alkateak kreditu aldaketak gainerik azaldu ditu.

4.3.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkateak alkate ebazpenen berri eman du.

5.- ESKARI-GALDERAK

Zerbait badakazue komentatzeko? Ez. Nik ere ez.

Beno, ba honekin uztaileko ohiko osoko bilkura bukatzen dugu. Abuztuan ez dugu edukiko osoko bilkurarik eta hurrengo hitzordua izango da irailaren 25ean. Oker ez baldin banago, irailaren hogeta bost, osteguna.

Bale ba ondo pasa oporrak. Agur.

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta berrogeita hamar direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Zumaian, 2025eko irailaren 5ean

IDAZKARI AKZIDENTALA

(2025/1453 Foru Agindua eta 2025/1491 Alkatetza Dekretua)

Izaskun Goikoetxea Labaka



EKS | CSV: ESKU34d8cfba-2364-4eb3-b26c-6d7b4b18b835

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=08110>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IAKU0007-akta/acta (ZUMAIAKO UDALA)